

Gretak bazekien gizonekin zuen harremana aterkiekin zuenaren berdin-berdina zela. Haien beharra zuen, baina euria ari zuenean bakarrik oroitzen zen haiekin. Milaka euritako galdu zituen Gretak bere bizitzan. Izan ere, euria ari zuenean beti oroitzen zen etxetik guardasola hartzeaz, baina kasualitatez norabait sartu eta irteterako ateri bazen, ahaztuta uzten zuen beti aterkia. Gizonekin berdin-berdina geriatzen zitzala.


Kale txukunak, jende ordenatua, laku ederrak, elurrezko panpinak... Eta eskale zarpailak, alkoholiko errukarriak, maitasun anemikoak, harreman izoztuak. Horra hor Suedia, Suediaren zati batzuk behintzat, Uxue Alberdik hautatuak eta moldatuak, ipuin liburu bat egiteko.

Kanpoko paisaiaren gainetik barne paisaia nagusitzen da ordea: ez zaigu esaten elurra ari ote duen espaloien gainean, ez zaigu axola ere, baina bai elurra ari duela bihotz barneetan, maluten dotorezia guztiarekin, baita zuritasun horren hustasun lazgarriarekin ere. Alde horretatik, suediarrez ez baizik nonahiko gizon-emakumez ari da egilea, idazkera eder, airos eta iradokitzaille batez.

aulki bat elurretan Uxue Alberdi

Aulki bat elurretan

Uxue Alberdi





OIHUA

Väastra Torggatan kalean euliak akabatzeko moduko hotza egin arren, ohean, beren arteko tartea amaraunez betetzen ari zela ohartu zirenean erabaki zuten margolanarena.

Hiru urte ziren elkarrekin bizitzen jarri zirela, eta bi, elkarri bizkarra emanda lo egiten zutela. Amaraunena gero etorri zen. Hasieran, elkarri bizkarra eman baino lehen edo goizean esnatu eta berehala egiten zuten maitasuna, bekarrez betetako begi txiki-txikiekin; baina elkarri bekarrak ikusten hasi ziren egunean, amodioa egiteari utzi zioten.

Oslon zerua gorri-gorri zegoen bekarrak bekar bihurtu ziren egunean.

Amanda eta David Karlstaden bizi ziren, ordea. Eta Karlstaden euritsua zen ditxosozko eguna.

–Zerbait egin behar dugu, David –zioen Amandak komunetik. Asteak ziren bainugelan janzten zela.

–Zerbait egin? Zerekin? –ziotsan Davidek ohetik, hitzak inertziaz osatuz, Amandaren hitzak belarri bate-tik bakarrik entzun baitzituen. Beste belarria leihotik begira zuen, euri tanten soinua asmatu nahian.

–Zerekin izango da, ba. Gurekin, amaraunekin, komunean dauden ile guztiekin. Azken asteotan zureak bakarrik ikusten ditut.

Davidek ezin zuen erabaki euri-tantek, kanpoan, klin-klin ala klan-klan egiten zuten. Baina agian Amandak arrazoi zuen, zerbait egin beharra zegoen traba egiten zuten gauza guztiekin: beraiekin, amaraunekin, ileekin. Orduan atera zen margolanarena. Beno, egia esan, margolanarena beranduxeago atera zen, Davidek bikotetik kanpo ere sexu-harremanak edukitzeko ideiarri *ezta pentsatu ere* lehor batekin erantzun zionean. Emozioa behar zutela? Beno, ba, orduan margolanarena egingo zuten eta kitto.

Bien margolan gogokoena zen Munch-en *Oihua*.

“Bidexka batean aurrera nindoan bi lagunekin –eguzkia etzaten ari zen– bat-batean zerua odol gorritzko bihurtu zen – Gelditu egin nintzen, akituta, eta barandaren gainean utzi nuen gorputza – odola zegoen, eta suzko mingainak fiordo urdin-beltzaren eta hiriaren gainean – lagunek aurrera jarraitu zuten, eta ni bertan gelditu nintzen egonezinez dardarka –eta oihu infinitu bat sentitu nuen naturan zehar igaroz”.

Mila eta batgarren aldiz errepikatu zituzten, biek batera, Edvard Munchek margolanari buruz idatzitako hitzak. Eta mila eta batgarren aldiz eztabaidatu zuten gaia: Amandak zioen hitzok ez zirela Munchek margolanari buruz gerora idatziak; alderantziz, artistak hitzekin margotu zuela zioen, zubi hartan zegoela idatzi zituela hitzok, eta ondoren letra bakoitzari kolore bat eman

ziola, eta horixe zela *Oihua*, poema bat, odolezkoa eta suzkoa, Osloko ilunabarrak bezalakoa, eta beraiek ere ikusi zutela *Oihua* Osloko zubi hartan, Munchek ikusi zuen leku berebean, baina berak bakarrik entzun ahal izan zuela, Davidek aurrera jarraitu zuelako. Munchen lagun bide beretik. *Horixe gertatzen da zurekin* esan zion Amandak Davidi, *Munchen lagun atzetik joaten zarela beti, gauza inportanteak ikusi gabe*.

Baina egun hartan, aspaldiko partez, ez zuten elkarrekin haserretzeko gogorik, eta, aspaldiko partez, bi aldiz egin zuten amodioa apartamentuko alfonbraren gainean. Kanpoan, euri-tantek klin-klin edo klan-klan egiten zuten.

Oporretarako utzi zuten koadroaren lapurreta. Ez zuen zentzurik otsailean egiteak: Oslorainoko bideak izoztuta zeuden, arriskutsua izan zitekeen eta, gainera, lana zuten biek, eta ez zuten margolan mirestek astirik izango. Horregatik aukeratu zuten 2004ko abuztuaren 22a, uda zelako eta Amandari ilusioa egiten ziolako bere urtebetetze-egunean *Oihua* etxera ekartzeak.

Goizean goiz atera ziren Karlstadetik Audi beltzean. Autoa arrankatu baino lehen, musu eman zioten elkarri ezpainetan, eta hiru orduko bidaiak azkar joan zitzairen, pixka bat berriketan, pixka bat kantuan, eta pixka bat erdi lo David, kopilotuaren aulkian. Guanteran zeramatzen bi kaputxa beltzak eta jostailuzko pistola hura. Erraza izango zen. Hamaika aldiz izanak ziren lehenago Munchen museoan, eta bazekiten zer-no-

la jokatu behar zen museo hartan margolan bat lapurtzeko: hartu eta alde egin.

Biharamunekö egunkariak ondo deskribatu zuten museoan gertatu zena, akats bakar batekin: Amanda gizonetzat hartu zuten. Hala behar zuen, kaputxarekin eta Daviden alkandora koadrodunarekin baitzihotan. *Atzo, abuztuak 22, batek pistola eskuan, enkaputxatutako bi gizonetzok Edvard Munchen "Oihua" eta "Madonna" margolan ezagunak ostu zituzten Osloko Munchen museoan. Egun-argiz gertatu zen lapurreta. Bi gizonek koadroak besapean hartu eta bisitari guztien aurrean alde egin zuten Audi beltz batean. Polizia minutu batzuk geroago iritsi zen...*

Madonnarena kapritxoa izan zen. Onartu egiten zuen Amandak. Plana, berak jostailuzko pistolarekin ingurura apuntatzea zen, Davidek Oihua hartu eta biek batera museotik alde egiteko, baina irteerako aterantz zihozela Madonna ikusi zuen Amandak korridorearen amaieran, ile beltz luzea sorbaldetan eta bularrak biluz. Davidek, Oihua besapean, korrika jarraitzen zuen bitartean atera zuen hormatik Amandak Madonna, eta gorputza margolaneko neska beltzaranari besarkatuta atera ziren bi emakumeak museotik. Audi beltzak ziztu bizian egin zuen alde.

Ederki ematen zuen Oihuak Väastra Torggatan-eko 8. zenbakian; museo horra zurian baino askoz hobeto, zinez. Oheburuan zintzilikatu zuten etxera iritsi eta berehala. Kaputxek buruak gehiegi estutu zizkietelako edo, luze egon zen bikotea erdi zorabiatu rik mar-

golanari begira. Odola, izotza, suzko mihiak, zubi luzea eta fiordo urdin-beltza, denak, den-denak aurpegi hezurtsuaren ahotik ihesi. Dena barandaren gaineko oihu bat, belarria luzatu orduko azpiko uretan itotzen zena. Perfektua. Ez zuen beste hitzik bikotearentzat.

Norbaitek beren bizitzak berriro ere goitik behera margotu izan balitu bezala sentitzen ziren Amanda eta David. *Oihuak* amaraunak ordezkatu zituen. Beren arteko zentimetroak mingain gorritz bete zituen margolanak, gora eta behera zihotan odolez, suzko miztoarekin urtutako fiordo urdin-beltzez. Pasioa berreskuratu zuten.

Eta dena ondo joan zen lehen asteetan, ezin hobeto. Baina, lapurreta egunetik pare bat hilabetera, David izugarrizko buruko minak sufritzen hasi zen Amandarekin amodioa egin ostean. Hasieran ez zuen horrek bikotea asko kezkatu, lanerako itzulerak eragindako estresa izango zela pentsatu zuten. Aste gutxiren buruan baina, David, buruari bi eskuekin helduta, gauero oihuka esnatzen hasi zen.

Amandak lasaitzeko esaten zion, lapurretaren ondorengo damua izango zela, poliziak atzemateko beldurra-edo, baina lasai egoteko, ez zegoela zertan kezkatu, polizia bankuetako transferentziak aztertzen lanpetuegi zegoela lapurrek margolan preziatua noiz salduko, eta ez luketela sekula ere Suediako hiri txiki batean pasioa galdu zuen bikote arrunt batean erreparatuko. *Horretarako gu bezain ero egon behar lukete, eta sinetsi, ez dute horrelako zortarik* esaten zion Amandak.

Baina gauzak ez ziren hobetzen. David pisua galtzen ari zen etengabe, ezerk ez zion laguntzen, ezta psikiatrak emandako pilula urdin haiek ere. Dena alferrik zen. Ilea galtzen hasi zen, begi zuloak handitu zitzaizkion eta gaueroko oihuak gero eta zorrotzagoak bihurtu ziren. Azterketa mediko ugari egin zizkioten hainbat ospitalean, baina denek esaten zioten gauza bera: ez zegoela buruko min haienezako azalpen zientifikorik, Daviden buru barruan dena ondo zegoela, dena zela normal-normal.

Kezkak gain hartu zion eta, gaur bai eta bihar ere bai, David urduritasun-krisiak izaten hasi zen. Medikuntzaren inguruko web orriak konpultsiboki irakurtzen zituen, jateari utzi zion eta, zinez, pertsona jasangaitza bilakatu zen: kontrola galdu zuen, eta ez zegoen haren alboan egoterik. Gainera, oihuak zirela eta, bizilagunak kexu ziren, eta Amandak ikaragarritzko beldurra zion zerbait are okerragoa gertatzeari. Horregatik eramán zuten David ospitale psikiatriko hartara duela bi hilabete. Espezialista guztiek esan zieten inon ez zela toki hoberik Davidentzat.

Behartuta eramán behar izan zuten David zentrora, arrastaka, eroetxeak erotu egingo zuela baitzioen berak, denen artean bera benetan erotzea lortuko zutela. Nahikoa zuela buruko minarekin. Nahikoa zuela.

Ospitaleko gela zuri eta huts hartan bizitzea ezinezkoa zela esan zionean bururatu zitzaion Amandari etxean oraindik leku finkorik ez zuen *Madonna* margolana Daviden ospitaleko gelara eramatea. Eskandinavian nonahi

daude Munchen obren kopiak, eta bazekien inor ez zela ohartuko margolanaren autentikotasunaz. On egingo zion Davidi dekorazio ezagunak.

Ordutik kolore guztietako pilulak irentsi ditu, eta haren oihuak ez dira baretu. Bizilagunak bai, bizilagunak isildu dira. Baina Davidek, egunero, buru soilduari bi eskuekin eutsita egiten du oiñu psikiatrikoan ere. Arrastiri gorrietan inoiz baino ozenago.

Amandak Väastra Torggatan-eko 8.ean jarraitzen du oraindik. Bakarrik sentitzen da, arrastiri gorrietan batez ere, eta, gauetan, negar egiten du Davidekin oroitzean. Ohean biluzik, adats beltza sorbaldetan beheara, *Madonna* bera dirudi.

